# LAGUNTZA KALTE-ORDAINAK
## AYUDAS INDEMNIZACIONES
## INFORMAZIOA-INFORMACIÓN

| **KONTZEPTUA**<br>CONCEPTO | **INFORMAZIOA**<br>INFORMACIÓN |
|---|---|
| **BIZILEKUA AURKITZEKO DIRU-LAGUNTZAK** | AYUDAS DE REALOJO |
| A aukera: etxebizitza alokatzea. Udalak hilean 1.000 eurorainoko diru-laguntza emango du famili unitate bakoitzeko, etxebizitza alokatzeko, etxebizitzan bizi ahal izateko gutxieneko obrak egin arte, Udaleko Zerbitzu Teknikoek ezartzen duen epean. Gastua justifikatu egin behar da. | Opción A Alquiler de Viviendas: El Ayuntamiento subvenionará con un máximo de 1.000€ mensuales por unidad familiar para el alquiler de una vivienda durante el tiempo que los Servicios Técnicos municipales determinen para la realización de las obras mínimas necesarias para lograr la habitabilidad de la vivienda. Se debe justificar el gasto. |
| B aukera. Berriro ostatu emateko beste modu bat. Udalak 100 euroko diru-laguntza emango dio hilean kaltetutako etxebizitzako famili unitateko kide bakoitzari, egoki deritzon lekura joan dadin bizitzera behin-behinean. Gastua ez da justifikatu egin behar. | Opción B Otra forma de realojamiento: el Ayuntamiento subvencionará con 100 € mensuales a cada miembro de la unidad familiar de la vivienda afectada para su realojamiento donde estime conveniente. No es necesario justificar el gasto. |
| A eta B aukeren arteko bat bakarra aukera daiteke. | Las opciones A y B son excluyentes entre si. |
| **EZINBESTEKO TRESNETARAKO LAGUNTZAK** | AYUDAS PARA ENSERES DE PRIMERA NECESIDAD |
| Udalak oinarri-oinarrizko kaltetutako tresnen erosketa diruz lagunduko du: arropa-garbigailua, hozkailua, sukaldea, ohea, mahaia eta aulkiak. Diru-laguntza hori gehienez ere 370 eurokoa izango da tresna bakoitzeko. | El Ayuntamiento subvencionará la adquisición de enseres de primera necesidad afectados: lavadora, frigorífico, cocina, cama, mesa y sillas. Dicha subvención será de 370€ como máximo por enser. |
| **IBILGAILU ETA MOTORRETARAKO LAGUNTZAK** | AYUDAS PARA VEHICULOS Y MOTOS |
| Udalak diru-laguntza emango die ibilgailu eta motorren jabeei, Getxoko Udalean trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaintzen dutenak, aipatutako zergaren zenbatekoari dagokionez. Gainera, nahitaezko aseguruaren kopia aurkeztea exijituko da. | El Ayuntamiento otorgará suvbención a todas las personas propietarias de vehículos y motos que abonen el Impuesto de Vehículos de tracción mecánica en el Ayuntamiento de Getxo en correspondencia al importe del mencionado impuesto. Además se exigirá la presentación de una fotocopia del seguro obligatorio. |
| **ETXEBIZITZA KONPONTZEKO LAGUNTZAK** | AYUDAS PARA LA REPARACIÓN DE VIVIENDA |
| Udalak kaltetuta suertatu diren etxebizitzen jabeei diru-laguntza emango die. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak tasatutako kalteen eta partzuergoak ordainduko duen diruaren arteko aldea izango da diru-laguntzaren zenbatekoa. | El Ayuntamiento subvencionará a las personas propietarias de las viviendas afectadas con la diferencia entre el daño tasado por el Consorcio de Compensación de Seguros y la cuantía que dicho Consorcio abonará finalmente. |

| | |
|---|---|
| Asegururik izan ezean, udaleko zerbitzu teknikoek baloratutako kalteen zenbateko osoaren bestekoa izan daiteke gehienezko diru-laguntza. | En caso de no disponer de seguro, la subvención máxima podrá llegar al abono del total de los daños valorados por los servicios técnicos del Ayuntamiento. |
| Obra lizentziaren eskaerarekin batera aurkezten den aurrekontuaren %30 aurreratuko du udalak gehienez. | El Ayuntamiento adelantará hasta el 30% del presupuesto presentado con la solicitud de licencia de obras |
| Era berean, udalak laguntza bat emango du ur, zabor eta estolda tasetarako, aurten ordaindu beharko litzatekeen diruaren adinekoa. | Habrá asimismo una ayuda del Ayuntamiento por las tasas de agua, basura y alcantarillado equivalente a lo que debería pagar en el presente año. |
| **TRASTELEKUAK** | TRASTEROS |
| Udalak gehienez ere 100 euroko diru-laguntza emango die trastelekuen titularrei. Trasteleku horiek kaltetutakoen udal erregistroetan ageri behar dira. | El Ayuntamiento subvencionará con un máximo de 100€ a las personas titulares de los trasteros. Dichos trasteros deberán figurar en el registro municipal de afectados. |
| **MERKATARITZA** | COMERCIO |
| Udalak kaltetutako komertzioen jabeei diru-laguntza emango die. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak tasatutako kaltearen eta partzuergoak ordainduko duen diru-zenbatekoaren arteko aldea izango da diru-laguntza gehienez. | El Ayuntamiento subvencionará a las personas propietarias de comercios afectados con la diferencia entre el daño tasado por el Consorcio de Compensación de Seguros y la cuantía que dicho Consorcio abonará finalmente. |
| Asegururik izan ezean, udaleko zerbitzu teknikoek baloratutako kalteen zenbateko osoa ordaindu ahalko da diru-laguntzen bidez. | En caso de no disponer de seguro, la subvención máxima podrá llegar al abono del total de los daños valorados por los servicios técnicos del Ayuntamiento. |
| Obra lizentziaren eskaerarekin aurkeztutako aurrekontuaren %30 aurreratuko du gehienez udalak. | El Ayuntamiento adelantará hasta el 30% del presupuesto presentado con la solicitud de licencia de obras. |
| Era berean, udalak ur, zabor eta estolda tasetarako laguntza emango du, aurten ordaindu beharko litzatekeenaren adinekoa. Jarduera Ekonomikoen Zergan alta hartuta dauden jarduera komertzialen titularrak izango dira onuradun. | Habrá asimismo una ayuda del Ayuntamiento por las tasas de agua, basura y alcantarillado equivalente a lo que debería pagar en el presente año. Serán beneficiarias las personas titulares de una actividad comercial dada de alta en el Impuesto de Actividad Económica IAE. |
| Udalak uholdeetan kaltetu diren aktibo finkoak konpontzeko edo ordezkatzeko laguntza eskainiko du. Laguntza horien zenbatekoa gehienez 1.800 eurokoa izango da lokal komertzial bakoitzeko. Jarduera Ekonomikoen Zergan alta hartuta dauden jarduera komertzialen titularrak izango dira onuradun. | El Ayuntamiento ofrecerá ayuda para la reparación o sustitución de activos fijos dañados por las inundaciones. El importe de estas ayudas llegará a un máximo de 1.800 € por local comercial y serán beneficiarias las personas titulares de una actividad comercial dada de alta en el Impuesto de Actividad Económica IAE. |

| LARRIALDI LAGUNTZAK | AYUDAS DE EMERGENCIA |
|---|---|
| Udalak zuzeneko laguntzak eskainiko ditu 2008ko ekainaren 1etik 14ra arte sortutako larrialdietako gastuak ordaintzeko, etxebizitza kaltetu zaien eta etxebizitza bizitzeko moduan ez zegoelako alde egin behar izan zuten bizilagunentzat.<br>Famili unitate onuradun bakoitzak gehienez gastu honen pareko diru-laguntza jasoko du: mantenua, gehienez gosari bat eta eguneko bi menu famili unitateko kide bakoitzeko. Arropak garbitzeko gastuak.<br>Justifikazioa faktura egokiak aurkeztuz egingo da. | El Ayuntamiento ofrecerá ayudas directas para el pago de gastos de emergencia devengados del 1 al 14 de junio de 2008 por vecinos y vecinas afectadas en su viviendas y que tuvieron que abandonar las mismas por inhabitabilidad.<br>Cada unidad familiar beneficiaria percibirá una subvención máxima equivalente a los siguientes gastos: manutención con un importe máximo de 1 desayuno y 2 menús del día por miembro de la unidad familiar además de los gastos de lavandería.<br>La justificación se realizará mediante la presentación de las correspondientes facturas. |
| **OBRA LIZENTZIA BERDINTZEKO LAGUNTZAK** | AYUDAS PARA COMPENSAR LA LICENCIA DE OBRAS |
| 2008ko ekainaren 1eko eta 8ko uholdeen ondorioz etxebizitzetan, trastelekuetan edo lokal komertzialetan jasotako kalteak konpontzeko obra lizentzia eskatu duten pertsona fisiko edo juridikoei diru-laguntza emango die udalak. Hirigintzako lizentziaren tasagatik eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarengatik, biak batuta, ordaindu behar den diruaren baliokidea izango da emango den gehienezko diru-laguntza. | El Ayuntamiento concederá una subvención a aquellas personas físicas o jurídicas que hayan solicitado licencia de obras para reparar los daños que hubieran sufrido en sus viviendas, trasteros o locales comerciales con motivo de las inundaciones del 1 y 8 de junio de 2008. La subvención máxima a percibir será el equivalente a la suma del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras y a la tasa por licencia urbanística |
| **ARRAZOI BERAGATIK JASOTZEN DIRENEKIN BATERAGARRIAK EZ IZATEA** | INCOMPATIBILIDADES CON OTRAS PERCEPCIONES POR LA MISMA CAUSA |
| Edozein aseguru-entitatek edo administrazio publikok konpentsazio ekonomikorik ematen badizu eta horren xedea udalak gastu jakin batzuetarako (ostatu berria hartzeko, tresnetarako, etxebizitzak, trastelekuak, komertzioak konpontzeko) eta aktibo finkoetarako ematen dituen laguntzen xede bera bada, udalari horren berri eman beharko zaio. Orduan, eman zaizun diru-laguntzatik zenbateko hori kenduko zaizu. Onuradunak dagokion zenbatekoa itzuli beharko du. | En el supuesto de que se percibiera una compensación ecónomica de cualquier tipo por parte de cualquier entidad aseguradora o administración pública de las que dan derecho a las ayudas del Ayuntamiento por gastos de realojo, enseres, reparación en viviendas, en trasteros, en comercios y ayudas para activos fijos, deberá hacerlo saber al Ayuntamiento y dicha cuantia se deducirá de la subvención que se le haya otorgado. La persona beneficiaria de la misma deberá reintegrar el importe correspondiente. |
| **FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZETARAKO KALTEDUNEN ZIURTAGIRIA TRAMITATZEA** | TRAMITACIÓN DEL CERTIFICADO DE DAMNIFICADOS PARA AYUDAS DE LA DIPUTACIÓN FORAL |
| Udalak eskatzen duen pertsonari kaltedun-ziurtagiria eman ahal dio, baita O.H.Z.ko zergarik eza, 2008ko ekainaren 11ko 1593/2008 Foru Aginduaren zehaztapenak betez. | El Ayuntamiento podrá tramitar el certificado de damnificado de aquella persona que lo solicite, así como la exención del IBI, conforme a las determinaciones de la Orden Foral 1593/2008 de 11 de junio de 2008. |

| **BESTELAKO DIRU-LAGUNTZA INSTITUZIONALAK** | OTRAS AYUDAS INSTITUCIONALES |
|---|---|
| Era berean, Eusko Jaurlaritzak, 107/2006ko ekainaren 10an Dekretuarekin bat etorriz, laguntza sistema bat ezarri du, uholdeetan kaltetutako pertsonentzat. Laguntza horiek tramitatzeko, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritzara joan behar da (Gran Via 85, Bilbo). Gainera, estatuko gobernuak ere laguntzak xedatu ditu; laguntza horiek tramitatzeko estatuko gobernuaren ordezkariordetzara jo behar da, Bilboko Moyua Enparantzan, 5zk. | Asimismo, el Gobierno vasco, conforme al decreto 107/2006 de 10 de junio ha establecido un sistema de ayudas para las personas damnificadas de las inundaciones. Para tramitar dichas ayudas deberán dirigirse a la delegación que el Gobierno Vasco tiene en la Gran Vía 85 de Bilbao.<br>El Gobierno del estado también ha dispuesto ayudas para cuya tramitación deberán dirigirse a la subdelegación del Gobierno de Estado sito en la Plaza de Moyua, nº 5 de Bilbao |